

BART GAUEAN

Leire Erkoreka

Areeta, 15 urte

illas terras de Vermeio et de Mundaca'
(1051)

pro remedio animarum nostrarum, hereditates in loco qui dicitur Vermeio, casas et terras et manzanares et pomares, cum omni integritate. Et alia parte damus in loco qui dicitur Erkoreka
(1053)

et illa ecclesia S. Micaelis arcangeli in portu Vermelio, in ora maris
(1082)

—Egunsentia da. Eguzkia irla baten atzetik ateratzen ari da. Irla luzatua, ezkerraldetik nahiko altua baina, eskumarantz doan heinean, altuera progresiboki jaisten da, azken lur zatiak uretan desagertu arte. Eguzkiaren argiak horizontea gorritzen du. Lekua, hobe esanda, haritza, kala bat besterik ez da, horizonteak inguratzen du. Bat-batean, marra gorria mugitzen hasten da, gorantz eta beherantz, ritmikoki, gero eta arinago, eta arinago, eta arinago, eta arinago, eta gehiago, eta gehiago... Azkenik marra gorria zenak bizia eskuratzen du eta har erraldoi gorri bihurtzen da. Harrak mugitzen jarraitzen du, gora eta behera, horizontean. Bere burua ezkerretik sartu eta hamar bat segundutara eskumatik agertzen da, irlaren atzetik pasatuz eta berriz ezkerraldetik desa-

gertuz. Monotonoa da, zoratzekoa, etengabe bueltak ematen ditu, mareatu egiten nau mugimendu horrek. Bat-batean, harra oihuka hasten da: "Vermiculus! Vermiculus! Vermiculus!" Aurrekoa zoratzekoa bazen, pentsa hau. Eeeeeeeeeeez! Ezin dut gehiago! —negarrez hasi naiz—. Jasanezina da! Gauero berdina! Gau guztian zehar soinu berbera, mugimendu berbera, infinituan galtzen den har baten ahotsa! Hurrengo egunean bueltatzeko erregutu zidan.

Ettxera itzuli bezain laster tila doble bat hartu nuen pastila batekin, beti geratzen nintzen trankilago ene psikologoaren ahots leun baina sendoa entzun ondoren. Berari zegokion nire arazoak konpontzea, eta ezer berezirik egiten ez bazuen ere, askoz ere bareago ailegatzen nintzen etxera. Arratsaldea berehala igaro zen, logureak ene begiak itxi nahi zituen saloian telebista ikusten nuen bitartean. Hiru kafe hartu nituen, bata bestearen jarraian. Ez zuen ezertarako balio izan, betazalak itxi eta berriz ere ene amets gaiztoen munduan sartu nintzen, New Delhi-ko apartamendu garestia utzi bezain laster mundu onirikoak bere ateak ireki zizkidan, sartzeko gonbitea eginenez.

—Harra, lekuz mugitu da! Gero eta hurbilago ikusten dut!

Besotik tira egin nion, bihotzaren taupadak bizkortu zitzaizkidan, ingururantz begiratu nuen, har gorria kafean igerian ikusi dut, gaur goizean etxetik irtetzean eskailerako barandila bapatean har gorri bihurtu da eta hona etortzeko autoa hartu

dudanean bolantean ere agertu zait, autobusa har-
tzera behartuz.

Bart gauean jada ez zegoen horizontean biraka,
kostalderaino hurbildu zen! Gora eta beherako
mugimendua berdina zen, beti bezain ritmikoa,
beti bezain monotonoa, BETI BEZAIN EROGA-
RRIA! Eeeez! Ezin dut honela jarraitu! Bi hilabete
daramatzat gau eta egun har madarikatua atzean
dudala! Kendu iezadazu gainetik, mesedez! —jaka-
ren idunekotik oratu eta bortizki astindu nuen.
Betiko baretasunaz nire eskuak gainetik kendu
zituen eta era onean eta nerbioso jarri gabe detai-
le guztiez amestutakoa kontatzeko eskatu zidan—.
Arren eskatzen dizut!

Zigarroa piztu nuen eta ahalik eta lasaien hitze-
giten hasi nintzen, eskuak dardarka nituen.

—Atzo, atzo har gorria kostaldean zegoen.
Kostaldea berak markatzen zuen. Eguzkia goi-
goian zegoen. Eguerdia zen. Eguna eguzkitsua izan
arren itsaso txarra zegoen. Olatu handiak.
Kostaldearen kontra jo ordez jarraren kontra jo-
tzen zuten. Har gorria ezkerraldetik eskumarantz
zihoan. Ezkerraldetik desagertzen ikusten nuen,
eta eskumaldetik berragertzen, oraingoan irlaren
aurretik. Eskumatik agertzean bere aurpegia
aurrez-aurre ikusten nuen. Bere suzko begiak nire
barnean sartzen zituen, nire barrena irakurtzeko
gai izango balira moduan. Hasieran nitaz barre egi-
ten zuela iruditu zitzaidan, baina keinu hori ez zen
irribar-keinua... Sufritzen ari zen! Olatuek bere
azal madarikatua mintzen zuten. Suzko begiak
inoiz baino sutuago zeuden, bat-batean, aho han-

dia ireki zuen, bere sufrimendua askatu nahiez, baina “aaaaah!” esan beharrean “Vermiclo!, Vermiclo! Vermiclo!” etengabe oihukatzen zuen. Bere garrasiak nire barreneraino sartzen ziren. Dardarka hasi nintzen. Belarriak ahalik eta gehien estutu nituen eskuez. Hala ere, guztiz estaliak izan arren, bere soinua berdin entzuten zen. Nik neure indar eta ahalmen guztiez oihukatu arren, bere oihuak, bere etengabeko kanta, nire garrasien gainetik entzuten ziren. Gorantz eta beherantz, beti erritmo berberaz. Gorantz eta beherantz, betiko moduan, gaueroko moduan, denbora guztian berdin. Gorantz eta beherantz, gorantz eta beherantz. **AZKENEAN ZORATUKO NAIZ!** Arren eskatzen dizut, **LAGUN NAZAZU!** Negarrez hasi eta hurrengo eguncan bueltatzeko agindu zidan.

Ez nuen lorik hartu behar, esna igaro behar nuen gau guztia. Gutxienez amesgaiztorik gabeko gaua igaro nahi nuen, gau bakarra! “Zergatik niri?” galdetzen nion neure buruari. Guztiok pentsatzen dugu bardin. Gaitzen bat izanez gero, “zergatik niri?” pentsatzen dugu, baina zergatik beste bati suertatu behar? Hala ere gehiegi zen, beti izan nuen barnekalde hauskor samarra, ahula, txikitatik egon naiz tratamenduen menpe nire emozio eta sentimenduak kontrolatzeko. Goizaldeko hirurak ziren, zazpigarren kafea hartzen ari nintzela gertatu zen, bat-batean, gaueroko mundu triste eta penagarrian barneratu nintzen, inoiz baino sakonago; inoiz baino osoago bereganatu ninduen; berea nintzen, eta hainbeste ordutan zehar izandako borroka gogoz ordainarazi zidan.

—Pasatu den asteko ametsa ez zen errepikatu, txarragoa izan zen; inoiz baino okerragoa. Larruz ordaindu nuen hainbeste ordutan itzarrrik egotea lortu izana. Ilunabarra zen, eguzkia oso baju zegoen, inguruko mendien artetik ezkutatzeko prest. Lehen hondartza zegoen tokian orain portu txiki bat zegoen, eta inguruan,... herri bat. Nire posizioa ez dut argi ikusten oraindik, baina herriaren gainean egon behar nuen. Hala suposatzen dut. —Dardarka hasi nintzen; ahotsa joan egin zitzaidan; ezin nuen ondoren zetorrena kontatu. Izugarriagia zen gizaki bati kontatzeko; sentimendurik gabeko izakiren batek beharbada ulertuko zukeen, baina berak ez, ezin nion esan. Baina nire betebeharra zen, berarekin ez zegoen sekreturik edukitzerik, bota egin behar nuen. Ohi zena baino lehen hasi zitzaizkidan malkoak erortzen, bihotzaren taupaden abiadura segundu pare batean ikaragarri arindu zen, zigarroari ezin nion eutsi, hainbestekoak ziren dardarak. —Har gorria inguruan daukat!!! —Begiak itxi nituen. —Orain gertatzen ari balitz moduan ikusten nuen guztia. Ni herri gainean nago, Jainko bat banintz moduan. Herria harresi batek inguratzen du. Ondo sentitzen naiz. Amesgaiztoak behin betiko bukatuta daudela sentitzen dut. Baina bapatean... EEEEEZZ! Harresia mugitzen hasten da, gorantz eta beherantz, gorantz eta beherantz, ritmikoki, ezkerretik esku-maldera, etengabe; etengabe mugitzen da harresia. Bere kolore grisa gorri tankerakoa bihurtzen da, gero eta gorriago, eta gero eta harraren antz gehiago hartzen du... harresia, HARRA DA! Har gorriak

inguratzen nau. Gehiago hurbildu aurretik ihes egiten saiatzen naiz, mendietara ihesi, eguzkiaren-gana hurbildu nahi dut, bere izpiak nire azala erretzen sentitu, eta azalaren ondoren nire barnea, harrak hainbeste aztertu izan duen barnekalde gorrotatua. Eguzkiak berak harraren begia dakart burura. Berak ere beldurtzen nau, baina hil egin nahi dut. Behingoan hil eta irtenbiderik gabeko kartzelatik atera. Ezinezkoa da. Badirudi bere indarrak, nire beldurak areagotua, harresi ikustezin bat eratu duela, zeruraino heltzen den harresi gogor eta iragangaitza. Ezin naiz mugitu. Pakistan aldeko tortura gela batean sentitzen naiz, mugitu ezinik. Gorantz begiratuta zero zabal eta askea ikusten dut, eta ikusteak bakarrik, hainbestekoa da ematen didan enbidia, begiek bista bertatik alden-tzera behartzen nautela. Baina beherantz begiratu-ta txarrago da. Harrizko etxeen inguruan bera bai-tago, bere begi sutsuak gorantz begira. Ezkerretik eskumarantz, gorantz eta beherantz, etengabe mugituz. Bere suzko begiak nire barnekoa irakur-tzen dute, irakurle batek liburu ireki bat irakurtzen duen eran. Aldi berean, niri zuzenduz, "Vermeio!, Vermeio!, Vermeio!, Vermeio!" oihukatzen du, ez naiz zarata ezta entzuten saiatzen ere, esperientziaz dakit txarragoa dela, baina izerditan hasten naiz. Hitz horrek bihotzera elektrizitate karga bat jaur-titzen dit; hitz horren izendatze bakoitzak gorputz guztian zirrara desatsegin eta mingarri bat sentia-razten dit. Akabatuta nago. Ez dauka min-keinurik, lehen gertatzen zitzaion moduan, bere aurpegiak poza adierazten du, ni sufritzen ikusteagatik, na-

hia, atsegina, laketa, plazerra adierazten du begirada hark—. Gaurkoz nahikoa zela esan zidan.

Beldur nintzen, baina goizetik oheratzea hobe izango zela pentsatu nuen. Loak berehala hartu ninduen. Borroka gogorik ez nuen. Hiltzeko gogoa baino ez nuen; heriotz garratz eta mingarri bat; gaueroko mundu hortara eramango ninduen heriotza.

“Loak hartu bezain laster, kostako herri hartara eramane ninduen inkonzienteak. Gaua zen. Itsasoa bare-bare zegoen. Herria farola argiz beterik zegoen, ez zen zaratarik entzuten. Txakurren baten ulu edo zaunkaren bat, katu gosetiaren miau luze eta tristea. Ilargia neu nintzen, gau hartan mendi, baso eta landak bere distiraz argitzen zituen argia nintzen. Paraje hartan boterarik boteretsuena zeukana neu nintzen. Harrik ez zen inondik ageri. Lasailasai zegoen gutzia. Irla itsasoaren erdian ikusten zen, beti bezain indartsu, beti bezain boteretsu; pertsonalitate gogor, ongi eraikitakoa, inguruan gaintik ateratzen den pertsonalitatea, inoiz garaitua ez den pertsonalitatea: nire antitesia. Ni ilargia nintzen, eguzkiaren gogoz egunero hiltzen zena, eta eguzkiaren gogoz gauero arima eta hildakoak argitzeko atera behar zena. Baina ilargia berez hildako bat zen, arimarik gabeko zerbait, pertsonalitatearik gabeko zerbait. Gau hartan soinu isil eta lasaikor batek bete zuen ingurua, soinu atsegin batek ‘Bermeo! Bermeo! Bermeo!’ alaitasunez abesten zuen, eta ama batek sehaskako umea abesti eta olerkiz lokartzen duen moduan, ilargia bera ere lokartu zuen, baina ilargia benetan lokartu

zuen, gau hartan guztiz lo geratu zen, betiko. Azkenik, bere lana bete zuela sentituz, eguzkiaren irteerari paso emanez. Egunsentia da”.